

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Miren Egaña Goya*

*Donostia,  
Gipuzkoa  
(1946)*

Aurkibidea



## Biografia



Euskal Herria kalean jaio zen, Donostiako Ensantxe Orientalean. Gurasoak ere donostiarrak zituen. Ama, Maria Dolores Goya, maistra ibili zen gerra aurrean, Etxaide kaleko ikastolan. Gerra sasoian Erresuma Batura joan zen La Habana itsasontzian, ume talde baten kargu. Gerra ostean, berriz, ikastola jarri zuen etxean, 1951. urtean, Karkizano kalean (Grosen); denborarekin, alaba ere hantxe ibili zen andereño gisa. Aita heriotza zigorrera kondenatua egon zen, gudari ibili ostean. Ez zekien euskaraz, baina etxean espainieraz hitz egitea debekatu zien seme-alabei. Hiru senide ziren. Miren eskola frantsesetan ibili zen lehenengo eta Aldapetan gero, mojekin. Magisteritza ikasi zuen, eta euskaraz Elbira Zipitriarekin eta Maria Dolores Agirrerekin alfabetatu zen. Filologia erromanikoa ikasi zuen, eta Euskarazko Katedra atera zuen lehen emakumea da. Hainbat tokitan jardun du irakasle, besteak beste Usandizaga institutuan. Fermin Leizaola etnografoarekin ezkondu zen, eta bi alaba izan zituzten. Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoa egiten aritu zen, eta 25 urte daramatza Kanadako euskal toponimia aztertzen.

## Zintak

### DON-079

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-17
- **Iraupena:** 137 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

## Pasarteak

### 1. Donostiako toponimia asko aldatu da

- **Erref:** DON-079/002
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:00:26. **Bukatu:** 00:04:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

#### Laburpena:

Donostiako Ensantxe Orientalean jaio zen, Euskal Herria kalean. Jendeak 'Ensantxe' izena galdua duela uste du. Ingurua ez da askorik aldatu, baina izenak aldatu zaizkie lekuei. Hiru urte izan arte bizi ziren bertan, hiru urterekin Grosera joan zen. Bera jaio zenean eta baita gerra aurretik ere, bere ama ere bertan jaioa baitzen, "Euscal Erria" izena zuen bera jaio zen kaleak, ez zioten izena aldatu. Salamanca pasealekuari 'Zurriola' deitzen zioten; asko mugitu omen den toponimoa da.

#### Transkripzioa

- Ba ni Donostin jaioa naiz, Ensantxean. Hori da jende askok ahaztu duen izena. Ensantxe orientala, hori da Donostiko lehenbiziko ensantxea, lehen Koxka deitzen zana, Euskal Herria kalean.

- Eta lehen nolakua zan inguru hori? Oraingo antzekua, ala?

- Bai, hori ez da asko aldatu. Bueno, aldatu zayo izena, hasteko. Esate baterako, guk Paseo de Salamanca ez genun inoiz deitzen, hori Zurriola zan. Eta... ez da asko aldatu. Bueno, aldatu da, bai, ba baseritarrak-eta saltzen duten leku hori, ba, mila bider aldatu dute. Eta Bretxa ere aldatu dute, Arrandegia beste zerbaitean bihurtu dute, baiño berez eraikiñak... Bueno, aparte Kursala egin dute eta hori dana, ba ez dia asko aldatu. Hori ez da asko aldatu. Eta gu hor bizi izan giñan, gutxienez ni, hiru urte izan arte. Hiru urtekin ya gurasoak alokatu zuten pixu bat Grosen, Karkizano kalean, eta honea etorri giñan Grosera bizitzea.

- Eta Euskal Herria kalea esan duzu, lehen izena nola zeukan?

- Hola, hola, hola berdin-berdin baino "c"-kin idatzita ta "h"-ik gabe. Nik hola ezagutu det: Euscal Erria. "C"-z idatzita ta gerra aurrean ere hola deitzen zan, ze nere ama etxe hortan bertan jaioa da, eta berdin-berdin deitzen zan. Ez zioten /etzioten/ aldatu izena; arraroa da, baiño ez zioten aldatu. Hori bai, bi general ditu batea ta bestea, e: General Jauregi eta General Artetxe, biak ditu hor, zaintzen bezela. E? Baiño ez. Aldatu dana da, zea, Zurriola. Guk deitzen genion, ta nik gero galdetu nion baita 're nere senarraren izebari, Donostiarrak zian, Leizaolatarrak, ia beraiek nola deitzen zioten zati horri. Osea, zan zubitik, ba, len Danborra deitzen genun lekuraiño. Danborra zan ba gaur gutxi gora behera Fotografika dagon leku, ixkin hortara arte. Hor zegon kanpoaldea eraikin bat, urtero-urtero itsasoak botatzen zuna, eta urtero-urtero berritzen zutena. E? Eta zan, ba, eskailera txiki batzuk iyo, ta hortik ikusten zan itsasoa. Badirudi ez genula nahiko gertu. Ba zati hori, Kursaleko zubitik horraiaño, horri deitzen genion Zurriola. Eta senarran izeba, oso edadetua, ya nik uste det izango zituela larogei urtetik gora, e... galdetu nion eta beraiek ere hola deitzen zioten. Beraiek Okendo kalekoak zian. O sea ke ez da gauza... Gero nik ikertu det

pixka bat hori e, eta ikusi det dala, hasteko, Donostiko lekuizenik zaharrenetariko bat, baiño ibiltaria ere bai. Ze lehenbizi zan gaztelutik behera zihoan kale bat. Ola bat egon behar zun ta ura. Ola, ba, burniola. Eta gero hortik bidaiatu zen e... horrea. Eta gero hortik bidaiatu da Grosera. O sea ke ikusten dezu mugitu den toponimo bat dela. Baiño mantendu da. Baiño mila hirureun ta ez dakit zein urtetan agertzen da, e.

## 2. 1951. urtean amak ikastola ireki zuen etxean

- **Erref:** DON-079/003
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:04:04. **Bukatu:** 00:05:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

### Laburpena:

<p>Lau urte zituela Karkizano kalera (Gros) joan ziren bizitzera. Bere amak orduan, 1951. urtean, ireki zuen ikastola Mirenen logelan bertan. Beraiek ere euskaraz ikastea nahi zuten etxean, baina ez zen posible izan. Andere&ntilde;o bakoitzak hamar ume baino ez zituen izaten eta Alde Zaharrean Elbira Zipitria baino ez zebilen garai hartan eta ez zuen tokirik. Beraien aitak, aldiz, ez zuen nahi bere seme-alabek gaztelaniaz ikasterik eta eskola frantsesetara joan ziren.</p>

## 3. Batxilerra Aldapetako mojetan

- **Erref:** DON-079/004
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:05:06. **Bukatu:** 00:07:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

### Laburpena:

Beraien aitak ez zuen nahi gaztelaniaz ikasterik bere seme-alabek eta isilpeko andereñoek sortutako ikastoletan ez zegoenez tokirik, eskola frantsesetara joan ziren. Frantziako ibilbidean, geltoki parean, zegoen ikastetxe hori. Garai hartako Donostiako ikastetxe garestienetakoa zen. Frantziako umeen metodologia eta liburu berberak erabiltzen zituzten. Etxean euskaraz egiten zuten. Baina batxilerra egiteko baliozkotzerakoan arazoak izan zitzaizkela jakiterakoan, mojen ikastetxera joan ziren batxilerra egitera. Mojen ikastetxean Aldapetan zegoen, Villa Belenen, marianistetara.

## 4. "Mirentxu" ez zela izena esan zion mojak

- **Erref:** DON-079/005
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:07:16. **Bukatu:** 00:10:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Politika » Politika eta Franco

**Laburpena:**

Oinarrizko ikasketak eskola frantsesetan jaso zituen. Baina Frantziako metodologia erabiltzen zenez, gero arazoak izan zitzaizketelakoan, batxilerra egitera Aldapetako mojengana joan ziren. Bere amak hor ikasi zuen eta horregatik joan zen bertara. Hasieran ez zuen arazorik izan, baina izen euskalduna dela eta laster izan zituen arazoak. Hamaika urte zituela mojak esan zion "Mirentxu" ez zela izena. Eskola frantsesetan, aldiz, ez zuen inoiz arazorik izan Mirentxu izena izateagatik. Harrezkero konturatu zen leku ofizialetan Maria del Carmen izena erabili behar zuela.

**5. "Formación de espíritu nacional" eta falangekoek emandako ikasgaia**

- **Erref:** DON-079/006
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:10:01. **Bukatu:** 00:11:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

**Laburpena:**

Aldapetako mojekin ez zuten 'Cara al Sol' abesten, baina falanjeoek emandako eskolak zituzten: "Formación de espíritu nacional" izeneko ikasgaia zuten. Soinketa eta "labores" ere falangekoek ematen zizkieten. Falangeak hainbat lanpostu sortu zituen horrela beraien jarraitzaileen artean.

**6. "¡Arriba España!" esanarazten ziona gerora lankide**

- **Erref:** DON-079/007
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:11:36. **Bukatu:** 00:13:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

**Laburpena:**

Aldapetako mojen ikastetxean, batxilerra ikasterakoan, falangekoak ematen zizkieten hainbat ikasgai. Bakoitzaren izena esaterakoan, "¡Presente!" esan behar izaten zuten, baina laugarren mailatik aurrera "¡Arriba España!" esan behar zuten. 1981. urtean euskarazko katedra atera eta institutuan lanean hasi zenean, laugarren mailako falangeko emakume hori fotokopiak egiteaz arduratzen zen bere institutu berean. Orduan Mirenek aurre egin zion eta laster utzi zuen ikastetxea beste hark.

**7. Amaren osabak ilobei ikasketak ordaindu**

- **Erref:** DON-079/010
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:15:42. **Bukatu:** 00:17:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

**Laburpena:**

Bere amaren etxean seme-alaba guztiek izan zuten ikasteko aukera. Marianista zen osaba batek denei ordaindu zizkien ikasketak. Bere amak batxilerra ikasi ostean irakasle-ikasketak egin zituen. Goi mailako ikasketarik egin ez zutenei atzerriko hizkuntza bat ikasteko ikasketak ordaindu zizkieten, hemen zein atzerrian.

**8. Gerra aurreko Donostiako ikastolak, ama andereño**

- **Erref:** DON-079/011
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:17:48. **Bukatu:** 00:19:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

**Laburpena:**

Mirenen amak irakasle-ikasketak egin ostean, gerra aurretik Etxaide kaleko ikastolan egin zuen lan. EAJ-PNVren ikastola zen. Groseko ikastola ere EAJrena zen, Usandizaga kalean zegoena. Alde Zaharreaan Muñtildetxoaren ikastola zegoen, baina ez zuen zerikusirik. Muñtildetxoaren ikastola 1908-1910 inguruan zabaldu zuten eta Elbira Zipitria ere bertan aritu zen irakasle. Ez daki ziur, baina uste du Etxaide kalekoa Errepublikara garaietan zabaldu zutela. Etxean amaren eta ikasleen taldeko argazki bat du ikastola aurrean ateratakoa eta pintada bat ikusi daiteke kalean, hortik ondorioztatu daiteke Errepublikara garaia zela.

**9. Amak oposaketak egiterakoan, gerra hasi eta Bizkaira**

- **Erref:** DON-079/012
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:19:12. **Bukatu:** 00:22:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

**Laburpena:**

Bere ama gerra aurretik Etxaide kaleko ikastolako andereñoa zen. Gerra etorri zenean, oposaketak egiten hasia zen, ekainean izan baitzen lehen ariketa. Hurrengo ikasturtean praktikak egin behar zituen, baina ordurako nazionalak sartu ziren Donostian, irailean sartu baitziren. Donostiako biztanleriaren zati handi batek hanka egin zuen orduan eta baita bere amaren etxekoek. Itsasoz Bilbora heldu eta Plentzian egin zituen praktikak. Gernika bonbardatzerakoan, eskolak itxi zituzten eta lan gabe gelditu zen.

**10. Ama Habana ontziko umeekin joan zen Ingalaterrara**

- **Erref:** DON-079/013
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:22:28. **Bukatu:** 00:24:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Ihes egin beharra](#)

#### **Laburpena:**

Bere amak gerra hasi baino hilabete lehenago egin zituen hezkuntzarako oposaketak. Gerrak bete-betean harrapatu zuen praktketan eta eskola itxi ostean, gerrako umeekin ebakutatuta joateko zerrendetan apuntatu zen. Habana itsasontzian 4.500 ume eta 500 irakasle joan ziren Ingalaterrara. Gorriak ikusi zituzten orduan ere, itsasontzia bonbardatzeko mehatxupear baitzeuden. Bederatzi hilabeteren ondoren, Parisera eta Donibane Lohitzunera joan zen, 1941. urtean Euskal Herrira bueltatu zen arte. Bere amaren ahizpa Parisen zegoen garai hartan, Eusko jaurlaritzaren telefonista baitzen.

### **11. Erbestetik bueltatzerakoan hainbat traba**

- **Erref:** DON-079/014
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:24:23. **Bukatu:** 00:26:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- [Politika](#) » [Gerraostea eta Francoren diktadura](#) » [Gerratik itzulera](#)
- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Ihes egin beharra](#)

#### **Laburpena:**

Gerra garaian bere ama Habana ontziko umeekin joan zen Ingalaterrara. Handik bueltatzerakoan, umeei ezin zien esan non zeuden beraien gurasoak, batez ere aita, erabat debekatua zuen Frankisten aldetik umeei informazio hori ematea. Bere amak Plentzian zein Ingalaterran erdaraz egin behar zien umeei, umeak eurak erdaldunak baitziren. Erresuma Batuko gobernuak ez zien batera lagundu, gizarte zibila zen lagundu ziena. Bere amak zein aitak beti kontatu zizkien orduan bizitakoak, beste askok, aldiz, isilean gorde dituzte garai hartako bizipenak.

### **12. Amak kartzela-zigorra ekidin eta osaba Venezuelara**

- **Erref:** DON-079/015
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:26:47. **Bukatu:** 00:27:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Errepresioa](#)
- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Ihes egin beharra](#)

#### **Laburpena:**

Gerrako umeekin Ingalaterrara joatearren, handik bueltan hamar urteko kartzela-zigorra ezarri zioten amari, baina ez zuen bete. Neba bat gudari zuen eta hura non zegoen jakin nahi zuten. Amaren neba hura Gernikan zegoen bonbardaketa egunean eta ikara handiz bizi izan zuten egoera, ez baitzekiten ezer. Osaba hura Venezuelara joan zen, ustez Australiara zeraman itsasontzi batean igo eta gero.

### **13. Euskaraz egitea galarazi arren, ikastola ireki zuen**

- **Erref:** DON-079/016
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:27:47. **Bukatu:** 00:29:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

**Laburpena:**

Gerrako umeein Ingalaterrara joatearren, handik bueltan hamar urteko kartzela-zigorra ezarri zioten amari, baina ez zuen bete. Gerra aurretik ikastolako andereñoa izan arren, ezin izan zuen euskaraz jarraitu lanean erregimenak hori galarazi baitzuen. 'La Voz de España' egunkariak azalean ekarri zuen: "Se prohíbe hablar en vasquense". Orduan Astigarragako Ergobia auzoan eskola bat zabaldu zuen eta gerora beste bat Martutenen. Eskola horiek berez erdaraz ziren, baina baserritarren sema-alabak zirenez, ez daki zenbaterainoko zein erdara hutsezkoa. Eskola hura itxi eta urte batzuetara beraien etxean jarri zuen euskarako eskola, 1951. urtean. Zalantzak izan zituen, baina Elixabete Maiztegik asko animatu zuen erabaki hori hartzerakoan. 1970. urtera arte aritu zen bertan, gaixotu zen arte.

**14. Etxeko logela ikastolako ikasgela nola bihurtu**

- **Erref:** DON-079/017
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:29:50. **Bukatu:** 00:32:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Euskara eta politika

**Laburpena:**

<p>Bere amak 1951. urtean beraien etxean ireki zuen ikastola. Mirenen logela zen ikastolako ikasgela. Goizez eta arratsaldez hamarna ume zituen hasieran eta gero hogeina ume. Logela hura ikasgela nola bihurtzen zuen azaltzen du. Hiru urtetik bederatzi urte bitarteko umeak zituen ikasle.</p>

**15. Isilpeko ikastoletan 'Xabiartxo', 'Lehoikume', 'Martin Txilibitu', Txomin ikasle'...**

- **Erref:** DON-079/018
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:32:18. **Bukatu:** 00:36:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Politika » Euskara eta politika

**Laburpena:**

Bere amak 1951. urtean beraien etxean ireki zuen ikastola eta 1970. urtera arte izan zuen martxan. Zein liburu erabiltzen zituen azaltzen du. Maritxu Barriolak 'Xabiartxo' liburuaren bigarren edizioaren edizio klandestino bat egin zuen. 'Orixe'k idatzitako 'Lehoikume' ere lortu zuen. Bere amari ez zitzaion bat ere gustatzen 'Martin Txilibitu' liburua eta horren arrazoiak azaltzen ditu. 'Txomin ikasle' gerra aurreko liburua ere lortu zuen.

## 16. Elbira Zipitria, Felitxu Eraso eta Faustina ikastoletako andereñoak

- **Erref:** DON-079/019
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:36:26. **Bukatu:** 00:37:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

### Laburpena:

Bere ama gerra aurreko eta osteko ikastoletako andereñoa izan zen. Elbira Zipitriaren bideari beste hainbat andereñoak ere jarraitu zien. Faustina (txikienak izaten zituen) eta Felitxu Eraso (Elbirarekin batera tandem bat osatzen zuen eta frantsesa ere ematen zuen) aipatzen ditu.

## 17. Elbira Zipitriaren andereñoentzako udako eskolak

- **Erref:** DON-079/020
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:37:25. **Bukatu:** 00:40:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

### Laburpena:

Felitxu Eraso andereñoak euskarazko eskolak emateko lokal bat izatea lortu zuen. Mirenek 1960. urtean entzun zuen lehen aldiz euskal gramatika eta euskal aditza lokal hartan Elbira Zipitriaren ahotik. Lokal hartan, Elbirak abuztuko arratsaldetan eskolak ematen zituen andereñoak zirentzat edo izango zirentzat, eta Miren bere amarekin batera joan zen 14 urte baino ez zituela. Gazteluan jolasean aritu ostean, arratsaldeko seietan lokal hartan kuadrilla handia batzen zen. Maria Dolores Agirre, Karmele Esnal, Karmele Mitxelena, Mari Karmen Lasarte eta Izaskun Bustos ere han ziren, besteak beste. Hiru gizonezko baino ez zeuden, kutzako langileak zirenak. Abuztu osoan zehar aritu ziren bertan. Alfabetatuak izan arren, bertaratutakoek ez zekiten gramatikarik.

## 18. Euskarazko aditzaren paradigma ikasteko eskolak 1960. urtean

- **Erref:** DON-079/021
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:40:15. **Bukatu:** 00:41:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

### Laburpena:

Elbira Zipitriak 1960. urteko abuztuan andereñoentzako edo andereño izango zirentzako gramatika eskolak eman zituen eta Miren han izan zen. Eskola horiek egin eta gero udaletxean antolatzen zituen Maria Dolores Agirreren eskoletan matrikulatu zen. Berez, adinagatik ezin zen matrikulatu, baina zaharragoa zela jarri eta onartu zuten. Aditzaren paradigma ikasi zuen bertan.

## 19. Irakasle eskolan euskarazko eskolak jaso zituzten

- **Erref:** DON-079/022
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:41:53. **Bukatu:** 00:45:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Politika » Euskara eta politika

### Laburpena:

60. hamarkada hasieran Donostiako irakasle-eskolan euskarazko eskolak jasotzeko aukera izan zuten. Lehendik alfabetatu xamarra zegoen, bere gelakideekin konparatuz gero oso alfabetatua. Bera donostiarra izanda, garai hartan arraroa zen euskaraz zekiela onartzea; izan ere, beldurrak eraginda, jendeak ez zuen onartzen publikoki. Euskarazko eskola haiek Milagros Bidegainek eman zizkien, momentu hartan Aldundiko liburutegiko arduraduna zena. 30 bat lagun apuntatu ziren.

## 20. Ikastola etxeko logelatik etxe azpiko lokal batera

- **Erref:** DON-079/023
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:45:02. **Bukatu:** 00:48:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Euskara eta politika

### Laburpena:

Euskarazko katedra atera duen lehen emakumea da Miren. 1970. urtean amak Karkizano kaleko ikastola bere esku utzi zuen eta Mirenek 1975. urtean itxi zuen. Amak utzi aurretik lortu zuten etxetik etxe azpiko lokal batera pasatzea ikastola. Lokal hartan askoz erosoagoa zeuden: bi gela zituzten, aulki luzeak zituzten, Euskal Herriko mapa zuten...

## 21. Karkizano kaleko ikastolara inspektore etorri zenekoa

- **Erref:** DON-079/024
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:48:14. **Bukatu:** 00:50:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Euskara eta politika

### Laburpena:

Beraien etxeko ikastola etxe azpiko lokal batean jarri ondoren, askoz erosoago zeuden han. Inspektorea joan zitzaien behin ikastolara, baina ez zuten arazorik izan. Bere amak Errepublikara garaiko maistra titulua zuen eta inspektoreak Mireni ez zion eskatu berea momentu hartan. Inspektoreak garrantzia eman zion beraien lanari eta ez zioten trabarik jarri.

## 22. Amaren pedagogia

- **Erref:** DON-079/025
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:50:56. **Bukatu:** 00:54:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

### Laburpena:

Karkizano kaleko ikastolan, ikasgelak etxetik lokalera jaitsi eta gero, Euskal Herriko mapa zuten. Mapa horri garrantzia ematen zioten, beraiek etxean beti izan baitzuten Gipuzkoako mapa eta horri esker ongi ezagutzen zuen herri bakoitzaren kokapena. Umetan eskola frantsesetan ikasi zuten eta gurasoek mugaz bestaldetik frantsesezko komikiak ekartzen zizkieten zekiten frantsesa mantentzen zezaten. Ikastolako umeekin ere pedagogia bera erabiltzen zuten eta kantuak eta otoitzak ere lantzen zituen. Bere amak EAJko abesbatza abesten zuten eta Emakumeetako kide ere bazenez, han ikasitako abestiak irakasten zizkien. Jaunartzeko otoitzak lantzerakoan, Euskal Herriko ibaiak eta mendiak lantzen zituen amak, eta irakurtzen ikasterakoan umeak gai ziren toki horiek mapan kokatzeko.

## 23. Keinuz lagundutako abestiak

- **Erref:** DON-079/027
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:54:30. **Bukatu:** 00:56:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

### Laburpena:

Kantu asko kantatzen zituzten ikastolako umeekin. Horietako hainbat aipatzen ditu: 'Hain urrun etxe poxpolo', 'Zozoak galdu du mokoa'... Horietako asko keinuak eginez abesten zituzten.

## 24. Kantatzea gizarteak galdu duen balore bat da

- **Erref:** DON-079/029
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:56:31. **Bukatu:** 00:59:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

### Laburpena:

<p>'Kantu kanta kantore' eta 'Boga boga' liburuetatik kantu asko jaso zituen bere amak. Bere ama asko joaten zen mendira eta mendian asko abesten zen. Autobusean ere lehen asko abesten zen, noiznahi aritzen ziren kantuan. Bere

esanetan, kantatzea gizarteak galdu duen balore bat da. Irakasle-eskolan ere kanta asko ikasi zituen. Larunbatetan Arantzazuko Ama Birjinaren ereserkia abesten zuten, bere izena baitzeraman eskolak.</p>

## 25. Euskarazko katedra atera zuen lehen emakumea

- **Erref:** DON-079/031
- **Iraupena:** 0:04:44. **Hasi:** 01:01:53. **Bukatu:** 01:06:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

### Laburpena:

Filologia erromanikoa ikasi eta irakaskuntzan aritu eta gero 1979. urtean hainbat katedra atera zituzten. Madrilek ateratako katedrak ziren eta Koldo Mitxelena zerrendatu zituen euskarazko katedra haiek. 1980. urtean ere institutueterako oposaketak antolatu ziren. Lehen aldia zen oposaketa batzuk Madrildik kanpo egiten zirena eta arazoak egon ziren tribunalak osatzeko izan ere, katedratikoa eta euskaraz zekitenak izan behar ziren bertako kideak. Tribunal horretako kideak aipatzen ditu, Koldo Mitxelena buru zutenak. Hamar katedra zeuden eta hamarrak banatu zituzten. Mirenek dio bera gainerakoen artean "arraroa" zela, ez baitzen ez seminariotik pasatakoa ezta gizonetzkoa ere.

## 26. Katedraren eta oposaketan arteko desberdintasuna

- **Erref:** DON-079/032
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 01:06:37. **Bukatu:** 01:09:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

### Laburpena:

Miren euskarazko katedra bat atera zuen lehen emakumea da. 1979. urtean atera zituzten hamar katedra eta orduan aurkeztu zen. Institutueterako oposaketak ere egon ziren. Bien artean zeuden desberdintasunak aipatzen ditu: ikasi beharreko gai kopurua, azterketen ordu kopurua, azterketa motak eta egiteko modua...

## 27. Aita gerran preso eta udaletxeko lana galdu

- **Erref:** DON-079/036
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:12:00. **Bukatu:** 01:13:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

### Laburpena:

Bere aita udaletxeko igeltseroa zen. Gerra hasi zenean, batailoi batean apuntatu zen. Kamioi-gidaria zen eta Bizkaia aldean egon ostean Santoñan atxilotu zuten. Bi urteko kartzela-zigorra bete zuen. Etxera bueltatzerakoan,

ezin izan zuen udaletxeko lanpostua jarraitu eta Lurdes Iriondo kantariaren aitarekin hasi zen bulegari bezala lanean.

## 28. Aitak euskaraz jakin ez eta ezin erdaraz egin

- **Erref:** DON-079/040
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:15:37. **Bukatu:** 01:17:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

### Laburpena:

Aitak euskaraz jakin ez arren, ez zien erdaraz egiten, euskaraz egiten saiatzen baitzen. Oso erradikala zela dio, ez zioten uzten ezta erdaraz abesten ere. Behin aitak berarekin kartzelan izandako batekin izandako elkarrizketa dakar gogora. Gizon haren seme-alabek ez omen zekiten euskaraz nahiz eta guraso biak euskaldunak izan, eta harritu egin zen beraiek euskaraz zekitelako. Mirenen amak Intxaurren bere izena daraman plaza bat du.

## 29. Atlas Etnolinguistikorako izebari egindako elkarrizketa

- **Erref:** DON-079/042
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 01:20:45. **Bukatu:** 01:23:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

### Laburpena:

Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikorako bere izeba zaharrena elkarrizketatu zuen Mirenek. 1993. urtean hil zen bere izeba eta hark kontatutako XX. mende hasierako hainbat kontu aipatzen ditu. 1986-1987 urte inguruan egin zion elkarrizketa hori, ez zuen grabatu.

## 30. Aitona-amonak erdaldunei ere euskaraz

- **Erref:** DON-079/043
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:23:53. **Bukatu:** 01:25:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

### Laburpena:

<p>Bere aita Antiguakoa zen eta astebururo joaten ziren haren gurasoak bisitatzerara. Aitona-amonak nafarrak ziren, Atarrabia eta Muruazabalgoak, ez zekiten euskaraz. Hala ere, beraiek dena egiten zien euskaraz eta gero beraien amak itzuli behar izaten zien.</p>

## 31. Euskara eta frantsesa ongi, gaztelaniaz eskas

- **Erref:** DON-079/044
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:25:11. **Bukatu:** 01:27:43

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Beraien erdara maila oso txarra dela dio, eskola frantsesetara joan baitziren. Mojen ikastetxera joan zenean, etxera heltzerakoan amari galdetzen zion hitz askoren esanahia: "sustantivo", "énfasis"... Hala ere, ikasle ona zen eta nota onak ateratzen zituen.

### 32. Bederatzi urterekin ingelesa ikasten

- **Erref:** DON-079/045
- **Iraupena:** 0:04:59. **Hasi:** 01:27:43. **Bukatu:** 01:32:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

**Laburpena:**

1954. urtean, bederatzi urterekin, ingelesa ikasten hasi zen. Donostiara etorritako gizon batek beka bat atera zuen eta bere neba hasi zenez ingelesa ikasten, etxeko gainerakoak ere ikasi zuten gurasoen ameskeriak tarteko. Institutu anglo-amerikarra non zegoen azaltzen du.

### 33. Donostiako euskarari buruz

- **Erref:** DON-079/048
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:34:40. **Bukatu:** 01:36:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

**Laburpena:**

Donostiako euskarari buruz galdetzerakoan, bere amak bera baino hobeto gorde zuela dio. Iñaki Caminok dio, eta berak Euskal Herriko Atlas Etnolingusitikorako elkarrizketak egin zituenean gauza bera ondorioztatu zuen, hitz bukaeretako /i/ eta /a/ren artean [y] segmentu epentetikoa sartzen dutela: "begiya"...; /u/ eta /a/ren artean [b]: /buruba/... Aditza gaizki erabiltzen dutela dio, baina nahikoa egin dutela hiri batean euskara mantentzearekin. Donostian ez zen hika egiten, kalean behintzat ez.

### 34. Hitanoaren erabilera desegokia

- **Erref:** DON-079/049
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:36:38. **Bukatu:** 01:37:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Behin tribunal bateko kide zela, aurkezpena egiten zegoenak hika egin zien denei, nahiz eta tartean bi emakume egon. Horrelako jarrerak bere ustez ez dira egokiak. Irratian ere, orotariko entzuleak daudenean, gizon zein emakume, ez du uste lekurik egokiena denik hika egiteko. Hala ere, entzule askok hika entzuteko leku bakarrenetarikoa hori dutela onartzen du.

**35. "Laja" aditza "laga" esateko**

- **Erref:** DON-079/050
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:37:53. **Bukatu:** 01:40:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

**Laburpena:**

Donostian "laga" aditza esateko "laja" erabiltzen zen lehen, nahiz eta Iñaki Caminok ez jaso horrelakorik. Bere lagun bati entzun zion lehen aldiz hitz hori.

**36. "Eman nazu", "ebiya", "gesala", "oju"...**

- **Erref:** DON-079/051
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 01:40:04. **Bukatu:** 01:43:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

**Laburpena:**

Donostiarrei leporatu zaie aditza gaizki erabili izana, baina Iparragirrek ere erabiltzen zuen "esan nau" nahiz eta Goierrikoa izan. Oiartzuarrek "emango zaitut" esaten dute. "Eman nazu" esatea oso Donostiakoa dela dio. "Euria" esateko "ebiya" esan izan dute. "Kresala" hitzak, aldiz, beti esan izan den "gesala" jan du. "Oihu" esateko Donostian beti erabili izan da "oju", hori ere galbidean dagoela dio. Institutuan irakasle zebilela, ikasleei hori transmititzen ahalegintzen zen.

**37. Ume garaiko Gros nolakoa zen**

- **Erref:** DON-079/053
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:43:33. **Bukatu:** 01:45:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

Bere ume garaiko Gros dakar gogora pasarte honetan. Eskolara oinez eta bakarrik joaten ziren, Mirakruz kalea norabide bikoitzekoa zen eta ez zegoen semafororik, ez zegoen hondartzarik, paseoan arrokak zeuden...

**38. Kursaaileko euskal festa**

- **Erref:** DON-079/054

- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:45:19. **Bukatu:** 01:46:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Zinema
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Politika » Euskara eta politika

**Laburpena:**

Hiru bat urte zituela, San Sebastian egun batez Kursaaaleko euskal festan parte hartu zuen bere neba nagusiarekin batera. Ume euskaldunak behar zituztenez, andre bat beraien bila joan etxera. Don Manuel Lekuonak idatzitako liburuxka batekin bueltatu zen etxera poz-pozik. 15 urte zituela, Kursaaaleko zinema-aretoan Marisol aktorea bere ondoan eserita zegoela ere gogoratzen du.

### 39. Donostiako lehen supermerkatua Kursaaalen

- **Erref:** DON-079/055
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:46:33. **Bukatu:** 01:47:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

Kursaaalen supermerkatu bat zabaldu zutenean, Europatik ekarritako lehen haragi izoztua bertan jarri zuten salgai. Mirenek ondo gogoan du amak nola erosi eta jan zuten

### 40. Zurriolako balea

- **Erref:** DON-079/056
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:47:23. **Bukatu:** 01:48:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Fauna » Natura » Itsas fauna » Ugaztunak

**Laburpena:**

<p>Umeak zirela, "Zurriola maritimo" taberna dagoen tokira bale bat ekarri zuten eta hura ikusteko sarrerak pezeta bat balio zuen.</p>

### 41. Ume erdaldunak euskarazko hitzak jolasean

- **Erref:** DON-079/057
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:48:18. **Bukatu:** 01:49:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena:**

<p>Umeak zirela, ume gehienak kalean ibiltzen ziren, baina beraiek ez zuten gogoko. Txingoka, saltoka... aritzen zen jendea. Aitaren auzora, Antiguara, joaten zirenean, bertako umeek euskaraz ez jakin arren, "azken", "hurren" eta "penhurren", erabiltzen zituzten jolasterakoan.</p>

**42. Urgull mendiko gaztelua ume euskaldunen ghettoa**

- **Erref:** DON-079/058
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:49:50. **Bukatu:** 01:51:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

**Laburpena:**

<p>Umeak zirela, uda garaian, gaztelura joaten zen bere amarekin beste ume euskaldunen ghettoa. Ingelesen kanposantuan batzen ziren. Ez zioten "Urgull" deitzen, "gaztelua" baizik.</p>

**43. "Urgull" kanpoko jendea hasi zen deitzen gazteluari, ordura arte "Gaztelua" zen**

- **Erref:** DON-079/059
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:51:09. **Bukatu:** 01:53:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

**Laburpena:**

Donostiarrek Urgull mendiari sekula ez diote "Urgull" deitu, "Gaztelua" baizik. 70. hamarkadan Donostiatik kanpoko zen jende asko etorri zen eta orduan hasi zitzaion "Urgull" deitzen. Extremaduratik etorritako jende asko zegoen eta Mirenek ez zuen beraien hizkera ulertzen. Gipuzkoako herrietatik ere familia asko heldu ziren, Donostiako hizkera indartu eta nahastu zutenak. Erdaraz hitz egiterakoan ere "El castillo" esaten zen, ez "Urgull".

**44. 'Koxkeroak' eta 'Joxemaritarrak'**

- **Erref:** DON-079/061
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 01:55:17. **Bukatu:** 01:58:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

**Laburpena:**

Institutuan irakaslea zela ikasleekin izandako elkarrizketa bat aipatzen du. 'Koxkero' hitzaren jatorria ardatz hartuta, San Sebastian eguneko abestia gogoratu zuten bertan aipatzen den 'Joxemaritar' hitza zer den azaltzeko. Izan ere, Donostian bi parroquia zeuden: Andra Maria eta San Bizente.

Joxemaritarrak Andra Mariakoak dira eta Koxkeroak San Bizentekoak. 'Koxkero' hitzak bertan zeuden koska batzuei egiten die erreferentzia. Legatza koxkero erara prestatzeak legatza donostiar erara esan nahi du. Ikasleei horiek Donostiako lehen zabalgunek zirela azaltzen saiatzen zen.

#### **45. Tomas Gros arkitektoa eta Gros auzoa**

- **Erref:** DON-079/062
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 01:58:25. **Bukatu:** 02:01:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### **Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

##### **Laburpena:**

Tomas Gros arkitektoak egin zituen Gros auzoko lehen villak. Bertako hainbat etxe eta eraikin aipatzen ditu, tartean auzoko zaharrenak zeintzuk diren.

#### **46. Senarraren aitona Grosen etxea eraiki zueneko**

- **Erref:** DON-079/063
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 02:01:30. **Bukatu:** 02:02:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### **Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

##### **Laburpena:**

Bere senarraren aitona sagardotegia eta etxea zituen Okendo kalean, Pio Baroja jaio zen etxean. Victoria Eugenia eraikitzerakoan, bere emazteak ez zuen itsasoa ikusten eta orduan Grosera etorri ziren. Bertan lur batzuk erosi eta sagardotegia ere jarri zuen hiltegia ondoan zuela.

#### **47. 'San Inazio irarkola' jatorrizko 'Argia' argitaratzen aitzindariak**

- **Erref:** DON-079/066
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 02:06:22. **Bukatu:** 02:07:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### **Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

##### **Laburpena:**

Bere senarraren aita ingeniaria zen. Inprentetarako makinak diseinatzen zituen. Bere lehengusuarekin batera 'San Inazio irarkola' sortu zuen, Garibai kalean zegoen eta 'Argia' aldizkaria argitaratzen zuen.

#### **48. Aitaginarrebaren inprenta eta etxea gerran lapurtu zuten**

- **Erref:** DON-079/069

- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 02:10:30. **Bukatu:** 02:11:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

**Laburpena:**

Bere aitaginarrebak gerra aurretik eraiki zuen elkarrizketa garaian bere etxea zena. Bertan zuen inprentako tailerra. Gerran etxean zuten guztia lapurtu zioten: igogailua, berogailuak, harraskak... Espainiako beste inprenta batzuetan egon ziren.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-28

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com